

Aingeru arri eroatellea

Antxiña, Berriz errian, bertako biztanleak eleiza eder bat egitea erabagi eben.

Eta egun batean, orretarako gayak ugari batuta, inguru aretako argiñik onenak, eleiza barria lasterren jasoteko orma sendoak egiten asi ziran, bertan arri pillo aundiak pillatuten ebezalarik.

Biaramon goizean, beargiñak euren lanetara joan ziranean, aurregunean eurak egiñiko lan guztia osoan gauzeztuta ikusi eben; egin eben lanaren aztarrenik, arean be ez eben ikusi.

Ori zala ta, bertan pillatuta egon ziran arri pilloak bertatik aldentuta ikustean, ezin geyagoan tamaldu ziran. Gauza bakan ori ikusita, argin-gizonak alkarrerri esaten eutsoen:

—Ze arrano jazo dok emen?... Sorgiñak, pamerialak ala ze denganiño ibilli ete dok bertan ara-onaka..? Lan egiñaren aztarrenik be etxoagu ikusten ba-ta... Atzo ekarri genduzan arri pilloak nun ete jagozak?

Eta olako itzak esanda gero, alako baten, aldenduriko arriak, erriko zelaiune baten alderrezkan polito polito imiñita egozala aurkitu ebezan. Orrenbestegaz gure gizonok, ikarearen ikaraz, ule-zutik jarri ziran. «Nor edo zer ibilli ete dok!» esaten eben. Eta gerotxoago pizkat adoreturikoan, arriak eta abar nok edo zek eroan ete ebezan jakin guraz, etxerik etxe itaunka ibilli ziran.

Gangoiti basetxera eldu ziranean baña, bertako neskatilla batek, gabeko amabietan burdi baten zarateagaz batera «Aurrera zuri bellegie» didarra entzun ebala esan eutsoen.

Ori entzunik, gizonak neskatilleari, gabeko amabietan, bere gelako leyuan zur eta adi egon zeitiala arren egin eutsoen; bear bada, aldenduriko arriak burdi aretan eroanak izango zirala ta, Neskatilleak baietz erantzun eutsoen.

Urrengo egunean, gizonak aurkituriko arriak eta abar, atzera lengo lekura eroanda, barriri eleiza barria egiten asi ziran. Eta egun guztian, jateko lain azti ostaz artuta, lanean eten barik ekin eben.

Esan eta egin, gau atan, Gangoiti basetxeko neskatillea, argiñen esanari jaramonda, bere gelako leyuan begi ta belarri zur eta adi, zer igaroko zan ikusten jarri zan. Onetan, gabeko amabi-amabietan, illargiaren argitan, an urrintxoan, burdi bakan bat etorralla oartu eban. Burdiak, etorri ta etorri, Gangoiti aldera egiten eban beti. Ta astiro astiro urreratubaz, etxe ondora eldu zanean, arriz beteriko burdi andi bat, bei zuri-gorri ederrak ekarrela ikusi eban. Eta bei zuri-gorrien ondoan, aingeru lirain bat be oinkada legunez etorralla ikaraz ikusi eban,

Gangoiti basetxiaren ondotik igarokeran barriz, bere esku legunekaz beyak mokorrean gozaro-gozaro joten ebazala, didar aundiz esan eban: Aurrera zurie-bellegio... begira dagonari begiak urten begio!

Ta aingeruak didar egin eban une-unean, Gangoitiko neskatilleari eskerreko begia bere lekutik urtenda soloko bedartzara jausi egin jakon. Ori jazo zanean, neskatilleak negarrez asifa, didar baten ekin eban. Aingeru zuriak baña, «aurrera zurie-bellegio» eten barik esanaz, bape jaramon barik, bere burdi ta guzti aurrera jarraitu eban; eta arriak aurreragoko egunean eroan ebazan lekura eroan arte, etzan geratu be egin. Gangoiti basetxeko neskatillea ikusgura larregiaz leyotik begira egon zalako, Aingeruak begi bat kenduaz zigortu eban.

Jazorikoaren barri errian zabaldu zanean, berriztar guztiak osoan arrituta geratu ziran. Eta Aingeruak arriak eroaniko lekuan Jaungoikoak eleizea egitea gura ebala ta, bertan eleizea egin eban. Eta egifñiko eleiza barria Jaunaren Igokundeari opaldu eutsen, erritar guztien guraria osoan beterik.

Mañariko



Gazi - gezak

Bere naiz eri danari

Nork emango dio osagarri?

Apaiz jaun bat eta ontzi-kapitan izan bat, Ziburuko egitik Itxasoan gora joan ziran Bezperak esanda gero. Mariñel zar bat, *Ganix*, zuten ontzitxoaren bidari eta lemazain. Urteko arorik ederrena zan, uztalla. Itxasoak, ezti-eztirik, lo zegoela zirudien. Goian etzan ageri goibelik bat ere. Aize legun eta goxo batek ur-azala zimurtzen zuen, belarrondo guria gure baratz gizenetan oi duen bezela, eta ontzitxo-